PROBLEMAK

1. Olaia 12:15ean gelditu da Urtzarekin, herriko parkean. Etxetik parkera 15 minutuko bidea badago, zein ordutan irtengo da etxetik garaiz heltzeko?

2. Mariak ordu bat eta erdiko bidaia egin du autobusean. Herritik 11: 30etan atera bada, zein ordutan iritsi da hirira?

3. Azokako arraindegia 9etatik 12:45era zabaltzen dute goizero. Zenbat denbora egiten du zabalik?

4. Aitzol eta Jaione goizeko 7:00etan jaiki dira. Aitzol bederatzi eta erdietan oheratu zen, eta Jaione, gaueko hamaiketan. Zenbat ordu egin du lo bakoitzak? Zeinek egin du lo gehien?